BERANGOKO UDALA

## Berangoko Udala

IRAGARKIA

2009ko azaroaren 5eko osoko bilkuran hasieran onetsi zen euskara ikasteko diru-laguntzen emakidak arautzen dituen Ordenantza. Horri buruzko erabakia jendaurrean azaldu da, eta inork ez du erreklamaziorik aurkeztu horretarako ezarritako epean. Beraz, behin betiko erabakia izango da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluko c) letran xedatutakoaren arabera, apirilaren 21eko 11/1999 Legearen idazkuntzan. Ordenantza hau, beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitu eta biharamunean sartuko da indarrean, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da ordenantza behin betiko onesteko erabakiaren kontra, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, administrazioarekiko auzietako salan; 2 hilabeteko epea egongo da horretarako, gai hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

**Euskara ikasteko dirulaguntzak emateari buruzko ordenantza**

**1. artikulua.—Xedea**

Ordenantza honen bitartez Berangoko Udalak Berangoko herritarrei euskalduntzen laguntzeko politika ezarri nahi du. Udalerriko edozein biztanle onuratu ahal izango da hartaz, adin-tarte, matrikulazio eta bertaratzearen beharkizunak betez gero. Interesatuek diru baliabiderik ez edukitzeak ez du oztopo izan behar euskaldundu ahal izan daitezen, beherago adieraziko diren mugen barruan.

## Ayuntamiento de Berango

ANUNCIO

No habiéndose presentado reclamación alguna dentro del plazo de exposición al público del acuerdo de aprobación inicial de la Ordenanza para la concesión de ayudas económicas para el aprendizaje del euskera, en sesión plenaria de fecha 5 de noviembre de 2009, dicho acuerdo queda elevado a definitivo de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49, letra c), de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, significando que esta Ordenanza entrará en vigor al día siguiente al que termine el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, contado desde la publicación de su texto completo en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Contra la aprobación definitiva de la Ordenanza, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de 2 meses contados a partir del día siguiente a la publicación de este asunto.

**Ordenanza para la concesión de ayudas económicas para el aprendizaje de euskera**

**Artículo 1.—Objeto**

La presente Ordenanza tiene por objeto permitir al Ayuntamiento de Berango aplicar una política de ayuda a la euskaldunización de los vecinos y vecinas de Berango, permitiendo que pueda beneficiarse de ella cualquier vecino o vecina del municipio que reúna los requisitos de edad, matriculación y asistencia, sin que se suponga o pueda suponer un obstáculo la falta de recursos económicos, en los límites que más adelante se señalan.

cve: BAO-BOB-2010a223

**2. artikulua.—Ezarpen eremua**

Ordenantza hau 4. artikuluan ezarri diren beharkizunak betetzen dituzten Berangoko biztanleei ezarri ahal izango zaie.

**3. artikulua.—Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Ordenantza honetan araupetu diren dirulaguntzen zenbatekoa matrikulazioaren eta eskolen kostuaren %50ekoa izango da, gehienez.

**4. artikulua.—Dirulaguntzen onuradunen beharkizunak**

1. Ikasketak egiten diren bitartean Berangoko Udalerrian erroldaturik egotea.

2. Interesatuak aldez aurretik eskabidea aurkeztea.

3. Matrikula edo ikastaroaren prezioa aldez aurretik ordaintzea, araubidean ezarritako epean.

4. Diruz laguntzeko eskatzen duen urratsean edo urratsetan ematen diren ikastorduetatik gutxienez %80 egitea edo, auto-ikaskuntzaren kasuan, aprobetxamendu egokia egiaztatu ahal izatea.

Ondore horietarako ez dira kontuan hartuko behar bezala bidezkotutako hutsaldiak, horien kariak gaixotasuna, osasun kontsulta, baztertezineko betebeharra edo araututako azterketetara joan beharra direnean.

Ikastaroa amaitu ondoren edo hiru hilero zenbatuko dira egindako eskola-orduak, eta beharkizunak betetzen direla egiaztatuz gero dirulaguntza ordainduko da.

5. Diruz laguntzeko eskatzen duen urratsaren edo urratsen egutegia amaitu artean Euskaltegiko ikasle legez baja ez hartzea.

**5. artikulua.—Prozedura eta kudeaketari buruzko arauak**

1. Eskabide orriak matrikula orriarekin batera aurkeztuko dira.

2. Behin ikastaroari edo hiru hileko urratsei dagozkien azterketak eginda, ikastegiaren zuzendaritzak dirulaguntzaren eskatzaileen bertaratze eta aprobetxamenduari buruzko txostena emango du eta, hala badagokio, ikastegiak emandako bekak. Tokiko Gobernu Batzarrak txosten hori eta interesatuek aldez aurretik aurkeztutako eskabide eta adierazpenak aztertuko ditu.

3. Auto-ikaskuntza ikastaroei dagokienean, ikastegiak eginiko txostena aurkeztu beharko da, aprobetxamendu egokia egiaztatzeko.

4. Ordenantza honetan araupetu diren dirulaguntzak behin eskuratzeak ez du esan nahi hurrengo ikastaroetan berez berriztatuko direnik. Dirulaguntza jasotzeko eskabidea eta agiriak ikasturte guztietan edo hiru hilero egin behar dira, eta indarrean dagoen urteko ikastaroak bakarrik onartuko dira.

5. Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, dena delako pertsona onuradunak dagokion zenbateko proportzionala itzuli beharko du, zenbateko osotik gora Berangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

**6. artikulua.—Aurrekontuko zainpeketa**

Udal Aurrekontuan ordenantza honetan araupetutako dirulaguntzek behar dituzten zuzkidurak egingo dira, aurrekontuko 451.480.01 partidaren pentsura. Dirulaguntzen guztirako zenbatekoaren gehieneko muga adieraziko da.

**7. artikulua.—Urratzeak eta zehapenak**

Ordenantza honetan araupetu diren dirulaguntzak jasotzeko baldintzei dagokienean maula eginez edo datuak ezkutatuz egiten diren urratzeek dirulaguntzen ezeztapena eta jaso behar ez ziren

**Artículo 2.—Ámbito de aplicación**

La presente Ordenanza será de aplicación a los vecinos y vecinas del municipio de Berango que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 4.

**Artículo 3.—Alcance de la ayuda económica**

Las ayudas económicas reguladas en la presente Ordenanza serán hasta el 50% como máximo del importe del coste de la matriculación y enseñanza del euskera.

**Artículo 4.—Requisitos para ser beneficiarios de las ayudas**

1. Estar empadronado/a en el municipio de Berango durante la realización de los estudios.

2. Solicitud por parte del interesado o interesada.

3. Previo abono del precio de la matrícula o el curso establecido en el plazo reglamentario.

4. Asistencia, al menos, al 80% del total de horas lectivas impartidas en el nivel o niveles para los que se solicita ayuda económica o, en caso de cursos de autoaprendizaje, poder acreditar un aprovechamiento adecuado.

A tales efectos, no serán tenidas en consideración las faltas debidamente justificadas por enfermedad, consultas médicas, cumplimientos de deberes ineludibles o asistencia a exámenes reglados.

El cómputo de las horas lectivas se efectuará una vez finalizado el curso o trimestralmente y la hipotética ayuda económica se reintegrará una vez acreditado el cumplimiento de los requisitos.

5. No causar baja, como alumno o alumna del centro, respecto al calendario del nivel o niveles para los que se solicita ayuda económica.

**Artículo 5.—Procedimiento y normas de gestión**

1. Las solicitudes se formularán conjuntamente con la matrícula.

2. Una vez concluidos los exámenes de los niveles correspondientes a cada curso o trimestre, por la dirección del centro se extenderá un informe relativo a la asistencia, aprovechamiento y becas si hubiera disfrutado, concedidas por el centro, de las personas solicitantes de ayuda económica, informe que con las solicitudes y declaraciones previas de quienes soliciten, serán valorados por la Junta de Gobierno Local.

3. En caso de tratarse de cursos de autoaprendizaje, se deberá acreditar el aprovechamiento adecuado mediante la presentación de un informe realizado por el centro.

4. La obtención de alguna de las ayudas previstas en esta ordenanza no implica su automática renovación para cursos sucesivos; sino que la solicitud y documentación requeridas deben efectuarse cada curso académico o cada trimestre, y sólo para cursos realizados durante el año en vigor.

5. Las subvenciones reconocidas por la presente ordenanza serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por organismos públicos o privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso a la reducción de la subvención a conceder. Caso de que, con posterioridad, se generase una sobrefinanciación de la actividad, la persona beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Berango.

**Artículo 6.—Consignación presupuestaria**

En relación a las ayudas económicas previstas en la presente Ordenanza, el Presupuesto Municipal contendrá las dotaciones precisas, concretando el límite máximo global de dichas ayudas con cargo a la partida presupuestaria 451.480.01.

**Artículo 7.—Infracciones y sanciones**

Las infracciones por ocultación de datos o fraude en las condiciones que dan derecho a las ayudas previstas en la presente Ordenanza, darán lugar a su revocación y al deber de reintegrar

cve: BAO-BOB-2010a223

kopuruak itzuli beharra eragingo dute, bidezkoak diren lege egintzen kalterik gabe.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Berangon, 2010eko azaroaren 8an.—Alkatea

(II-8844)

las cantidades indebidamente concedidas sin perjuicio de las acciones legales a que hubiere lugar.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Berango, a 8 de noviembre de 2010.—La Alcaldesa

(II-8844)